

# ANTIBIOTIKOEN ERABILERA GERORATUA

Zure medikuak antibiotiko bat preskribitu diezazuke farmazian har dezazun egun batzuk pasa eta gero zure sintomak okerrera egiten badute. Hori gertatzen da berehala hartzea behar-beharrezkoa ez denean, baina eboluzioa zaintzea beharrezkoa denean. Infekzio akutu ez konplikatuetan erabiltzen da, hala nola faringitisa, otitisa, sinusitisa, bronkitisa, zistitisa...

## Baina infekzio bat badut, zergatik ez dut hasieratik antibiotikoa hartzen?

Kasu hauetan gehienetan infekzioak birikoak dira eta antibiotikoen ez dute eraginik birusetan. Bakterianoak direnean ere, kasu batzuetan, gure organismoak berak menderatzen ditu antibiotikoen hartu beharrik gabe.

## Eta ezin ditut "badaezpada" erabili?

- Egun batzuk itxaroten baduzu, infekzioa bakarrik senda daiteke, eta ez duzu behar ez den sendagirik hartuko ezta ere haren albo-ondorioak jasango (beherakoa, alergiak, ondoak...).
- Gainera, erresistentziak murrizten lagunduko duzu, antibiotikoen eraginkortasuna gal ez dezaten.

## Zerbait gertatuko zait egun batzuk pasa eta gero hartzen badut?

- Tratamenduaren hasiera egun batzuk atzeratzeak ez du prozesua okertuko edo luzatuko infekzio-prozesu akutu ez konplikatuetan.
- Medikuen adieraziko dizu zer neurri hartu behar duzun infekzioaren eboluzioa zaintzeko eta zer kasutan hasi behar duzun antibiotikoa hartzen.



### IRAILA

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

*Kontsulta medikoa* (13, 20)  
*Farmazia* (16)

## Gogoratu...

Zure medikuak antibiotiko bat errezetatzen badizu "erabilera geroratua" egiteko, farmazian izango duzu eskuragarri egun batzuetan.



### Informazio gehiago:

- **i-botika fitxa** eta **i-botika bideoa** Antibiotikoak: Denon onerako... Ondo erabili
- **i-botika fitxa** Antibiotikoekiko erresistentzia: saihestea zure esku ere badago

### Bibliografia:

- PRAN: Plan nacional frente a la resistencia a los antibióticos 2019-2021.
- Spurling GKP, Del Mar CB, Dooley L, Foxlee R, Farley R. Delayed antibiotic prescriptions for respiratory infections. Cochrane Database of Systematic Reviews 2017, Issue 9. Art. No.: CD004417. DOI: 10.1002/14651858.CD004417.pub5.